



BARREN

TOKIKOM

Jauzia, txarrak uxatzeko



Gremioen gida

ARROZTEGIAK



Ermuaranbide, 12-14-16
tel/fax. 943 743 116
www.biena.eus
info@biena.eus



Ulazia

ARROZTEGIA ETA ENBALAJEAK
Albitxuri industriagunea, 1-O/ 1-P
943 740 547



MAR

ARROZTEGIA

Otaso industriagunea, 17 beheak
943 531 471
609 054 978
carpinteriamar@hotmail.com



iraolagoitia

aroztegia · altzariak · etxe-aldaketak

Kurutuz-gain Industriagunea, 9
20850 Mendara
Tel.: 943 756 112 / 636 497 485

www.iraolagoitia.com

ASIMA

Ermuaranbide, 18 - Elgoibar

687 150 226
650 026 631
636 886 322
943 744 225

asimaaroztegia@gmail.com

ITURGINTZA



BULEGOA ETA ERAKUSKETA
Pedro Migel Uruzuno, 8
Tel.: 943 740 512 / Faxa: 943 743 585
tenda@pagoagasa.com
www.pagoagasa.com

BILTEGIA
San Antolin, 13 - Tel.: 943 740 279
taller@pagoagasa.com

ELGOIBAR



San Roke, 10-A, beheak B
Elgoibar
Floren Cid: 647 463 436
ibamar@euskalnet.net



Pedro Muguruza Etorbidea, 11
ELGOIBAR
Tel.: 943 254 522
Faxa: 943 254 523
ongi@ongielgoibar.com
www.ongielgoibar.com



Igor Santana
ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.
Urazandi kalea 17, beheak
Elgoibar
943 740 530 / 605 714 905
santanaiturgintza@gmail.com

Iturgintza

Aroztegiak

LEIHOAK



SIGMA INDUSTRIAGUNEA, 223
lodosofj@gmail.com
Tel.: 943 74 34 90

PINTURA



Uparitzaga, 14 - Elgoibar
943 741 552
606 431 120
biok@biokdekorazioa.com

IZURRIEN KONTRAKO TRATAMENDUAK

Hércules



658 710 898

Izurrien kontrako
tratamenduak

Leihoak

ELEKTRIZITATEA

CARRANZA,

ELEKTRIZITATEA

Uparitzaga, 10, 6.B
Elgoibar
karranza@elgoibar.com

Tel.: 943 741 280
Jose Luis: 626 555 999

egoluz

ELEKTRIZITATEA S.L.

Raimon: 677 512 462
Ego-Gain, 9 AC
20600 EIBAR

Andres: 630 957 345
Pedro Migel Uruzuno, 14 beheak
20870 ELGOIBAR

Bulegoa: 943 200 697
ego.luz@hotmail.com

IGELTSERITZA

A.Garate

Era guztietako
igeltseritza lanak
egiten aditua

angelmgarate@gmail.com
Santa Ana kalea, 28 beheak - 2. zkia
Elgoibar

610 226 651

Pintura

Elektrizitatea

Igeltseritza

BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

▶ AMAIARI

Escribeme... izan ziran zure azkene-tariko berbak.

Hemen gaoz, Amaia, lagunzurtz... eurixak eta malkuak blai.

Bale, *te escribiré*, baña zuk erantzun e!- esan netsun.

Amaia maitxagarrixa, more-urdira, alaixa, ausarta... lagunon pizgarrixa.

Nora baña? -zure galdera.

Nora? Zuk erantzun, guk entzungo dogu-eta, zure barre algara; jasoko dogu-eta, barruan zure berba; ikusiko doguz-eta inguruko kolorietan nahastuta zure begi bizixak; dantzan sentiduko zaitxugu gure onduan, eta kantuan...

Zorionekuak gu, ezagutu zaitxugulako eta zure indar eta alaitxasuna emon deskuzulako.

Zelako tropia dakazun oin zain-tzeko... badakigu-eta zure indarra eukiko dogula, zure bizi-griña eta kemena, zure alaitxasuna beti lagun.

Joder, Amaia, motza baña intensua! Eskerrak bizitzak zurekin tope eginarazi deskula, ezagutzeko eta zutaz eta zurekin disfrutatzeako aukera emon deskula... hain intensua izan dan oparixa!

Zain eukiko gaitxuzu eta guk beti eukiko zaitxugu gurekin.

Asko maitxe zaitxugu.

Zure lagunok

▶ URAZANDI AUZOKO ELKARTEAREN ADIERAZPENA

Urazandiko auzokideok Elgoibarko herriari jakinarazi nahi diogu maiatzaren 16an eta 22an egindako bileretan erabaki gurea auzo-elkarte bat sortzea. Une honetan elkartea sortze prozesuan dago. Batzar haietan ezagutu nahi genituen auzokideen iritziak eta antolatzeko prestutasuna, auzoko bizi kalitatea hobetuko duten jarduerak egiteko asmoz, beti ere auzoak dituen behar espezifikoerantzuteko: hala nola, irisga-

rritasuna, mugikortasuna, ekipamenduak, segurtasuna eta abar. Auzokoen erantzuna ezin hobea izan da, eta horregatik erabaki dugu elkartea sortzea. Elkarrekin honen helburua auzoko bizi kalitatea hobetzeko asmoz auzokideok egingo dituzten proposamenak bideratzea izango da, bai eta komunikazio kanal bat sortzea ere Udalarekin elkarrekin zuzena ahalbidetuko duena, Urazandi auzoari eragiten dion edozein gai aztertzeko. Proposamenak, iradokizunak eta iritziak helarazteko, auzokideok bide ditugu: alde batetik, buzoia jarri dugu Asgi tabernan, eta beste aldetik, helbide elektronikoa ere sortu dugu: urazandiauza@gmail.com.

Urazandiko Auzo Elkartea

▶ EKAINAREN 29AN, KALEGOEN PLAZARA!

Uda atarian gaude berriro. Denbora pasatzen da, eta ahazturan gelditzen zaizkigu gertaerak, pertsonak. Guk, gure aldetik, gogora ekarri nahi dugu jada zortzi urte pasatu direla ETak borroka armatua utzi zuenetik, bi urte pasatu direla desarmatu zenetik eta urtebete pasa, desegin zenetik. Biolentzia politikoa hau desagertu da, baina preso politikoen inguruan martxan jarri zen espetxe politikak bere horretan dirau, krudeltasun guztiarekin. Urteetan euskal presoerantzuteko legalak erabiltzeko eskatu izan zaie, baina horretan hasi direnean, ezezko biribilak topatu dituzte begi aurrean.

Sebas Etxaniz Alkorta elgoibartarra horietako bat da. 75 urte ditu. 18 urte jarraian darama preso. Lehenago ere beste hiru urte egin zituen preso. Legeak ahalbidetzen du adin honetako presoak kaleratzea behin-behineko askatasunean. Baina ukatu egiten diote. Gaur egun bigarren graduan dago (euskal preso politikoen %84 lehen graduan

daude). Hirugarren gradura pasatzea ukatzen diote (honek egoera hobea ekarriko lioke: espetxetik irten asteburuetan, lotara bakarrik joatea espetxera...). Ipintzen dioten arrazoia da baimenik ez duela izan orain arte (eskubidea du). Baimena eskatzen duenean, ukatu egiten diote, irteerarik gabeko zirkulua bategan sartuz. Reinzidentzia arriskua ikusten dute epaileek Sebasengan. 1a 76 urterekin, eta ETaren indarkeria orain dela ia zortzi urte bukatu zenean!

Sebasek uztailaren 15ean beteko ditu zigorraren hiru-laurdenak. Legalki beste motibo bat gehiago behin-behineko askatasuna eman diezaioten. Horregatik ekainaren 29an, eguerdiko 13:00etan, Kalegoen plazara azaltzeko eskatzen dizugu, bertan egingo den agerraldian parte hartzeko. Sebasen eskubideak errespetatzea elkarbizitzan eta bakean aurrerapausoak ematea da. Elgoibarko Udalak ere horrela ulertu zuen, eta horregatik eskatu zuen Sebasen askatasuna. Orain pauso bat eman eta zuk ere parte hartzea eskatzen dizugu.

Han elkar ikusiko dugulakoan jaso agur bero bat!

Sare Elgoibar

▶ ESKERRIK ASKO

Debemen elkarrekin eskerrak eman nahi dizkie Trinitateetako azoka antolatzen lagundu zuten guztiei. Batez ere, hilabeteetan zehar antolakuntza bileretara etorri izan diren auzoetako alkateei, eta nola ez, Armueta harategiko Angeli ere. Baita ere egunean bertan dastaketa orduan eta bazkaria zerbitzera etorri ziren landa inguruko auzoetako boluntario guztiei ere. Sagardoa banatzen egon ziren gazteak ere ez ditugu ahaztu nahi. Mila esker.

DEBEMEN

Gazteen artean zientzia eta teknologia sustatzeko ekimena abiatuko dute



Elgoibarko Udalak gazteen artean zientzia eta teknologia sustatzeko *Bizilabe* egitasmoa jarriko du martxan. Ekintzailetza eta sormena sustatzeaz gain, 11 eta 14 urte arteko gazteen artean teknologiaren eta teknikaren alorrean kualifikazio handiko profesionalak sortzeko helburuarekin sortu dute egitasmoa, besteak beste, industriaren sektoreari bultzada emateko. Irailaren 2tik 6ra tailer monografiko bat egingo dute, Bizilabe zer izango den azaltzeko. Interesatuek uztailaren 25a baino arinago eman beharko dute izena, ondorengo helbidean: <https://labur.eus/irailekotailerraelgoibar>. Bizilabe egitasmoan izena emateko azken eguna, bestalde, irailaren 16a izango da. Nahi duenak esteka honetan eman dezake izena: <https://labur.eus/bizilabe2019-2020ikasturteaelgoibar>

Sanbartolomeetako jubilatuen bazkarirako txartelak salgai

Abuztuaren 25ean izango da aurten Jubilatuen Eguna, eta urtero bezala, jubilatuen bazkaria antolatu dute egun horretarako. Jubilatuen Biltokiko zuzendaritzak jakinarazi du dagoeneko salgai daudela bazkaritarako txartelak. Interesatuek astelehen eta ostiraletan erosi ditzakete txartelak biltokian bertan, goizez, 7 euroan. Txartelak erosteko azken eguna uztailaren 29a izango da. Antolatzaileek esan dute 200 lagun baino gehiago espero dituztela aurtengo bazkarirako.

Larrain dantza ikastaroa antolatu dute

Haritz dantza taldeak eta Musika Eskolak Larrain dantza ikastaroa antolatu dute ekainaren 29rako. Ikastaroak 15 euroko prezioa dauka, eta ekainaren 26ra arteko epea dago izena emateko, Musika Eskolan. Iazko sanbartolomeetan egin zen estreinakoz Larrain dantza, eta aurten ere egiteko asmoa dago. Ikastaroan parte hartzen dutenek, beraz, sanbartolomeetako Larrain dantzan parte hartzeko aukera izango dute.



BARREN

ARGITARATZAILEA:



ELGOIBARKO IZARRA
Euzkalf. Euzkalf. Euzkalf.

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

barren@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskuittzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zalaa Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Edurne Izagirre, Paula Heras, Enetz Ezenarro, Ander Soraluze, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegui, Jone Olaizola, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:



ELGOIBAR
UDOLA
KLUBAREN BARRA

LAGUNTZAILEAK:



MENDAKO
1963



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Gorka Mir eta Alex Sanjuan, IMHko ikasle ohi aipagarrienak



IMH Sariak banatu zituzten joan zen astean, eta Gorka Mir elgoibartarrek eta Alex Sanjuan azpeitiarrek jaso zuten ikasle ohi aipagarrienen saria. IMHn ikasi ostean egin duten ibilbide profesional "eredugarriagatik" saritu dituzte. Mekatronika Industrialeko goi-mailako heziketa zikloa ikasi zuen Mirrek IMHn, eta 2010ean Laserlan enpresa sortu zuen. San Juanek erdi mailako Mekanizazio zikloa egin zuen IMHn, Mekatronika Industrialaren Heziketa Zikloa gero eta Ingeniaritza Duala azkenik, eta azken hiru urteetan Pixel Sistemasekin batera hazi da. Beste hiru sari ere banatu zituen IMHk: Ikasle aipagarriari dagokion saria Oier Elorzak jaso zuen; Ikasle elgoibartar onenari dagokiona Adrian Romerok eta Jon Peñak aipamen berezia jaso zuen, SpainSkillsen parte hartu izanagatik.

San Lazaro egoitzako langileek kanpaldia egin dute lan hitzarmenaren aldeko borrokaren baitan



Lan hitzarmenaren aldeko borrokan, greba hasi dute berriro Gipuzkoako Zahar Etxeetako langileek (uztailaren 12ra artekoa), eta bat egin dute San Lazarokoek. Eguenean, egun osoko kanpaldia egin zuten Maalan, bizi duten egoera salatzen eta gerturatzen zirenei informazioa emateko, eta atzo, elkarretaraztea egiteko zuten, Kalebarren plazan. Gaur, berriz, auto karabana egingo dute eskualdean.

Bilbo Hiria Idiazabal Artzain Gazta txapelketa Mausitxarentzat

Ordiziako eta Gernikako gazta txapelketen ostean garrantzitsuen den txapelketa irabazi du Mausitxako gaztak: Bilbo Hiria Idiazabal Artzain Gazta Txapelketa. Guztira, 25 gaztagilek parte hartu zuten eta Mausitxak jaso zuen lehen saria. Bigarren saria Gaztañaditxulo gaztandegiak irabazi zuen, eta Lekarozeko Kortariak, hirugarrena. Jatorri Izendapeneko Kontseilu Erregulatzailleak araututa, Euskal Herrian egiten diren denboraldiko aurreneko txapelketa izan da Bilbokoa. Mausitxarentzat ez da Bilbon irabazten duen aurreneko aldia. 2005etik gaur arte, zazpi alditan irabazi du Bilboko gazta txapelketa: 2005ean, 2007an, 2011n, 2013an eta 2016an.

Aurrekontuak osatzeko prozesu parte hartzailea, martxan

Herritarrek udal politiken diseinuan parte hartzea nahi du Elgoibarko Udalak eta horretarako, prozesu parte hartzaile bat jarri du martxan, bigarren urtez. "Prozesu honen bidez udalerriri buruzko kezak eta interesak adierazi ahal izango ditugu. Bizilagun guztiak tartean egotea nahi dugu, gure udalerririk behar duten inbertsioen zati bat zehazten", azaldu du Ane Beitia alkateak. Prozesua bi fasetan gauzatuko da: proiektuak aurkeztuko dira lehenengoan, eta iragazki tekniko bat pasatzen dutenen artean, batzuk lehenetsiko dituzte gero herritarrek. Udalak 200.000 euro jarriko ditu aukeratzeko diren proiektuak egiteko.

Prozesuan Elgoibarren errolatuta dauden 16 urtez gorako guztiak parte hartu ahal izango dute. Bide ezberdinak daude horretarako. Aurrez aurre egin nahi duenak inprimaki bat bete beharko du, eta honako leku hauetan egongo diren kutxatiletako batean utzi: Gotzon Garate Udal Liburutegia, Jubilatuen Etxea, Kultur Etxea, Herritarren Arreta Zerbitzua eta Olaizaga kiroldegia. On-line egin nahi duenak www.elgoibar.eus webgunean dauka horretarako aukera. Gaur, berriz, karpa ere jarriko dute Kalegoen plazan, 11:00etatik 13:30era eta 16:00etatik 18:30era.

Ana Aizpiri kazetari elgoibartarra izango da aurrerantzean Covite biktimen elkarteko bozeramailea

Ana Aizpiri, kazetaria eta ETAk 1988an hil zuen Sebastian Aizpiriren arreba, izango da Covite biktimen elkarteko bozeramailea aurrerantzean. Ahazturaren arriskuaz mintzatu zen joan zen astean Euskadi Irratiko Faktoria irratsaioan, eta estreinakoz, neba zuenaren inguruan mintzatu zen, ETAk hura hil eta 31 urtera. Sebastian Aizpirik 38 urte zituen eta Eibarko Chalcha jatetxearen eta Elgoibarko harategi baten jabe zen, 1988ko maiatzaren 25ean ETako bi kidek tiroz hil zutenean. Eibarren hil zuten, Arrate hotelaren parean, Labaderokuan. ETAk, hilketa justifikatzeko, Sebastian Aizpiri drogen salerosketarekin lotuta zegoela esan zuen orduan, baina orduan esandako guztiak gezurtatu ditu haren arrebak urteetan. Neba hil izanak eragindako mina "sakona eta mikatza" izan zela esan zuen irratian, eta ETaren gainerako biktimei bezala, beste min bat gehitu zaiola gerora: "Norberaren min horrek, ondoren, beste min, zabal, hedatu eta gaixo bat dakar. Hainbeste pertsonak jarraitzea gerora etorriko ziren hilketen ondoren, ETakoak xaxatzen, haien alde egiten eta urteetan eta urteetan *ETA, mátalos esaten*".



Paul Rojo ikasle elgoibartarrak lortu du selektibitateko notarik altuena Gipuzkoan



Paul Rojo Mugerza (Elgoibar, 2001) Elgoibarko Institutuko ikasleak (argazkian lehenengoa) 9,74ko nota eskuratu du selektibitatean, Gipuzkoako notarik onena eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako bigarren notarik altuena. Guztira, 10.600 ikaslek egin dute aurten unibertsitatara sartzeko proba, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan. Elgoibarko Institututik jakinarazi dutenez, institutuko 107 ikaslek egin dute, eta batek ez beste guztiek gainditu dute. Paul Rojo da, era berean, Institutuan Ohorezko Matrikula lortu duten sei ikasleetako bat. Gainerako bostak hauek dira: Teresa Aceña, Mikel Albizuri, Lore Gerrikagoitia, Beñat Fernandez de Jauregi eta Andoni Iburguren. Institutuak ekainaren 28an banatuko dituzte diplomak, Herriko Antzokian, 19:00etan.

Autodefentsa feminista saioak, Mendaron

Mendaroko Udalak eta Gazte Asanbladak antolatuta, 16 urtetik 25 urtera artekoentzako autodefentsa feminista saioak egingo dituzte Mendaron gaur, ekainaren 25ean eta 26an, 17:30etik 20:30era. Ikastaroan parte hartzeko izena eman behar da, eta gutxienez sei lagunekin taldea osatu behar da abiatzeko. Izena emateko: kultura@mendaro.eus / 943 033282.

'Gurean bai' kanpainako zenbaki sarituak, hemen

1503	436	3422
2761	5187	5678
6361	4531	5525
4446	8754	5116
9870	2825	3860
5727	7297	4365
7869	7371	7458
4848	6131	1581
8615	8788	7147
3393	4854	621

▶ Ane Beitia izango da alkate Elgoibarren beste lau urtez, eta haren alderdikide Iñaki Arregik aginduko du Mendaron

EAjk aginduko du datozen lau urteotan Elgoibarren eta Mendaron. Ezustekorik ez zen izan beraz zapatuan, nahiz Mendaroko kasuan sekula baino handiagoa izan zen ikusmina (Bideoak: *barren.eus*). Elgoibarren, Ane Beitia izendatu zuten alkate, bere alderdikideen botoekin. EHBilduk ere aurkeztu zuen hautagaitza, eta zazpi boto eskuratu zituen Jon Peli Uriguenekek: berea eta koalizio-kideenak. Evaristo Rodriguez Elkarrekin Podemoseko zinegotziak bere buruari eman zion botoa, eta PSE-EE, berriz, absenteitu egin zen bozketan.

Kargu-hartze ekitaldiaren bukaeran, Ane Beitiak hitza hartu zuen, beretzat alkate izatea "ohore handia" dela esateko, besteak beste. Legealdi berriari begira jarrita, orain arteko bideari eutsiko diotela nabarmendu zuen, eta "kudeaketa eraginkor, erantzule eta hurbil" baten aldeko apustua egingo dutela agindu. Horretarako, baina, gainerako alderdietako ordezkariari entzun eta akordioak lotzea ezinbestekoa izango dela adierazi zuen. Alabaina, hauteskunde programan jasotakoak betetzeko "talde zintzo eta ardurtsua" duela gehitu zuen, elgoibartarren "ongizatea eta bizi-kalitatea" hobetzen jarraitzeko ilusioa eta ardura duena. Azkenik, eskerrak eman zizkien udaleko langileei, kargua laga zuten zinegotzietan nahiz udal gobernuan sartu diren berriei, alderdikideei, etxekoei eta EAJren hautagaitzan sinistu duten elgoibartar guztiei.

Ikusmin handiagoa izan zen Mendaron. EHBilduk izan du alkatetza azkeneko bi legealdietan, eta hauteskundeetan, berea izan zen zerrendarik bozkatuena, baina ikusteko zegoen EAJ eta PSE-EEren arteko akordioa beteko ote zen. Ez zen, baina, ezusterako tarterik izan, eta lehenengo bozketan bertan lortu zuen Iñaki Arregik gehiengo, Mari Jose Telleriaren babesarekin, eta ondorioz, bera izango da alkate datozen lau urteotan. Arregik



Elgoibarko udal gobernuia.



Mendaroko udal gobernuia.

sei boto lortu zituen bozketan, eta Enetz Ezenarro EHBilduren alkategaiak, lau, bere zerrendakideena. EHBilduko Olatz Bizkarguenagak ez zuen bozketan parte hartu, arrazoi pertsonalengatik. Nolanahi ere, ez parte hartzeak ez zuen teknikoki eraginik emaitzean, ezta PSE-EEko zinegotziak EAJko hautagaitza babestu ez balu ere, legeak diolako alkatea aukeratzeko bozketan hautagairen batek gehiengo osoa lortu ezean, automatikoki, udal hauteskundeetan alderdi bozkatuena izan zenaren zerrendaburua izango litza-tekeela alkate; Enetz Ezenarro alegia.

Bozketak bukatu berrikan Ezenarrok

hartu zuen hitza, esateko "tristeia" iruditzen zitzaiola "paratxutista batek" erabaki izana Mendaron norik aginduko duen, Mari Jose Telleria eibartarrari erreferentzia eginez. "Alderdietako exekutibaren kromotrukaketa baten baitan kokatzen da akordioa", esan zuen Ezenarrok. Hala ere, eskua luzatu zion EAJri, "Mendaroren alde egiteko". Arregik, berriz, eskerrak eman zizkien euren alderdian sinetsi duten mendarotar guztiei eta "lana eta lana" agindu zituen datozen lau urteetarako. Programan esandakoak betetzeko lan egingo duela nabarmendu zuen, "hitzetatik ekintzetara" pasatuz.

▶ Trinitateak argazkitan

Isildu dira danborrak, eta amaitu dira Trinitateak. Ekintzaz beteriko asteburua izan genuen joan zen astean Elgoibarren eta Mendaron, eta BARRENEKO kamera han eta hemen ibili zen une horiek biltzen. Bi orrialde hauetan dituzue asteburuko zenbait irudi. Argazki guztiak eta bideoak ikusteko: www.barren.eus



UDAKO KLASEAK MATRIKULA IREKIA *Itxaroten zaitugu!*

Eskola errefortzuak ikasbai akademian - Ingeles eskolak ikasgo academy-an

IKASBAI **IKASGO**
AKADEMIA ACADEMY

Basarte 13, behea - Elgoibar
akademielgoibar@gmail.com

667 261 248



Aurrematrikula epea zabalik

2019-2020

Gorde ezazu
zure lekua!

IKASBAI AKADEMIA

- Matematika, euskara, gizarte, fisika eta kimika...
- LH ETA DBH
- Euskara errefortzuak

IKASGO AKADEMIA

- Ingeles errefortzuak.
- Cambridge azterketak
- Talde txikiak



'Uztaileko barixakuak, Usuan': Uda, musika giroan

Uztaileko barixakuetan herriko kaleetan egoten den uda giroa musikaz janztea bururatu zaio Ander Mujikari. Musika du ofizio eta afizio, eta musika oinarri hartuta prestatu du *Uztaileko barixakuak, Usuan* egitasmoa. Lau ostiral, lau kontzertu. Formato txikiko kontzertuak izango dira, antzerakoak, baina desberdinak guztiak, eta hizkuntza nagusia, euskara izango da saioetan, nahiz eta beste hizkuntza batzuk ere entzungo diren. Usuan izango dira emanaldiak, parke hori oso gustuko duelako antolatzaileak, eta euria egiten badu, udaletxeko arkupea lekualdatuko dira saioak. 20:00etan hasiko dira kontzertuak. Jarraian duzue egitarauari buruzko informazioa.

KOKEIN. Uztailek 5.

Kokein biluzik. Taldea osatzen duten bost kideetatik hiru soilik igoko dira taula gainera, normalean distorsioa eta soinu gogorra ezaugarri dituzten kantuen bertsiak akustikoak defendatzera. Kantu batzuk moldatuak izango dira, beste batzuk gordinxeagoak, eta bertsioren bat edo beste ere joko dute.



JOSEBA IRAZOKI. Uztailek 12.




Jakin-mina bere baitan errotua duen joera askotariko gitarrista polifazetikoa da Joseba Irazoki, konposizioan ez ezik inprobisazioaren munduan ere gogo biziz barneratzen dena. Kantatzeaz gain, hainbat soinuren efektuak eta programazioak maneiatzen ditu, eta gitarrei, harmonikari eta bonboari hitz eginarazten die. Erritmo eta soinuen anabasa neurtu bat sortzen du bere saioetan. Musikari beratarra barkarka arituko da.

MOBY DICK. Uztailek 19.



MobyDick folk-akustiko estiloko proiektua da, Eneko Burzakok beste zenbait taldetan (Nun, Bizhil, Zast!, Tribute to QOTSA...) aritu eta gero, 2008an hasi zuena. 2009an *And then she became God's friend* grabatu zuen, bere lehenengo EPa. Azken urteotako emanaldietatik nabarmentzekoak dira artista hauekin egindakoak: Anari, Ainara Legardon, Jose Gonzalez, Bigott, The New Raemon, Maika Makovski, Damien Jurado, Mursego, Zea Mays, Christina Rosenvinge...

LOS SARA FONTAN. Uztailek 26.



Sara Fontanen biolin anplifikatu, loopeatu eta distorsionatuak, abstrakzioetik emozionatzeko gaitasuna du edozein estilotik aske. Kontzertuak bakoitzak imajinatu nahi duenaren soinu banda bihurtu daitezke, entzuleari askatasunez bere erara sentitzeko eta interpretatzeko aukera ematen diolako. Edi Pourekin (ZA! taldearen erdia) etorriko da gurera, bera izango du lagun perkusioan. Aukera paregabea izango da mugitu gabe bidaiatzeko.

Gure Artea sarietako bat jaso du Xabier Arakistain 'Arakisek', erakusketa-komisario gisa egindako lanaren aitortza moduan



Gipuzkoa, Bizkaia eta Araban arte plastikoen eta ikusizko arteen eremuan egin den lana goratzen dute Gure Artea sariak, eta Xabier Arakistain Ezenarro *Arakis* da aurtengo sarituetako bat. Erakusketa komisario gisa egindako ibilbideagatik nabarmendu dute. Arakisekin batera, Miren Arenzana (Bilbo, 1965) eta Sahatsa Jauregi (Itaparica, Bahia, 1984) saritu dituzte. Sari-banaketa ekitaldia irailaren 17an egingo dute, Artiumen. Sarituek 18.000 eurona jasoko dute.

Emakumezko eta gizonezko artistak berdintasunez tratatu izana eta arte ofizialaren historiografiaren kanonak berraztertzen egindako lana azpimarratu ditu epaimahaiak Arakisen ibilbidean. Besteak beste honako erakusketengatik jaso du aitortza: *Transsexual Express* Bilboarte (Bilbo, 1999), *Transsexual Express*, Rosa Martinezekin batera (Bartzelona, 2001), *Kiss Kiss Bang Band* Arte Ederren museoa (Bilbo, 2007), *Guerrilla Girls* (2013), *Why Not Judy Chicago?* (2015) edota *Margaret Harrison. Sexu, klase eta indarkeriaren arteko harremanak* (2017). Horrez gain, 2001 eta 2013 bitartean Bilboarteko erakusketa-programaren arduraduna izan zela gogoratu du epaimahaiak, bai eta Gasteizko Montehermoso Kulturuneko zuzendaria ere, 2006tik 2011ra. "Montehermoson, kudeaketa-eredu feminista zuen arte eta pentsamendu garaikideko kultur-gune berri zailea sustatu zuen, emakumeen paritate bermatuz programa guztietan", dio epaimahaiaren oharra. Azkenik, Arakisek kultur-areto ezberdinetan emandako hitzaldi ugariak ere aipatu ditu epaimahaiak.

Elgoibarko Gaztelekuak sanbartolomeetarako kamisetak egiteko tailerra antolatu du

San Bartolome jaietarako kamisetak egiteko tailerra antolatu du Elgoibarko Gaztelekuak estrainezko. Nerabeek jaietarako egiten dituzten kamisetak gazteek eurek diseinatu eta egitea bultzatu nahi dute antolatzaileek. Ekainaren 24an eta 27an egingo da tailerra, Egur Arte Tailerrean, hango irakasleak zuzenduta. Ekainaren 24ko saioa arratsalde izango da, 17:00etatik 19:00etara, eta bi ordu horietan kamisetak diseinatuko dituzte gazteek. Ekainaren 27ko eskola, berriz, goizez izango da, 10:00etatik 12:00etara, eta hor kamisetak serigrafiatuko dituzte. Kamiseta diseinatzeko orduan, Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapeneko Sailak dituen hiru zehar-lerroak (euskara, berdintasuna eta inklusioa) landuko dituzte. Tailerrean parte hartzeko, izena eman behar da, ekainaren 19a baino lehen. Whatsaapez (628 170 330) edota Instagramez eman behar da izena (@elgoibarkogaztelekuak).

Espainiaren ikuspuntu "fresko, berri eta lotsagabea", Teo Martinezen argazkitan

Teo Martinez argazkilaria (Logroño, 1930) begirada berezia, samurra eta azidoa islatzen ditu *Nostalgia eta Handikeria* izenburuko erakusketak. Ongarri Argazki Taldeak eta Elgoibarko Udaleko Kultura Sailak antolatu dute erakusketa, eta ekainaren 29a arte egongo da ikusteko aukera Kultur Etxeko erakusketa gelan, astelehenez zapatura, 18:30etik 20:30era. "Bere belaunaldiko kide ezagunen inbidiarik gabe, garaiko eskolez harago, bizitza egokitu zitzaion Espainiaren ikuspuntu fresko, berri eta lotsagabea gailentzen da bere lanean, konposiziorako zein iruzkin sozialerako berezko senaren jabe dena", jaso dute antolatzaileek haren aurkezpen-oharrean.



Mauxitxa: 50 urtez Txiki Eguna girotzen



Mauxitxa txaranga 50. aldiz irtengo da aurten Txiki Eguna girotzera. 1970eko Txiki Egunean jo zuen lehendabizikoz Mauxitxak, bederatz lagunez osatutako talde batekin. Mende erdia pasatu da ordutik, eta hori ospatzea erabaki dute. Aurtengo Txiki Eguna, beraz, berezia izango da, txarangarentzat, eta baita herritarrentzat ere. Herri bazkaria antolatu dute, 50 Txiki elkarrekin ospatzeko. 800 lagunetik gora batuko dira bazkaritarako Sigmako aparkalekuan, eta ez da jai girorik faltako.

Makillak kuadrillako lagunek txaranga bat sortzea erabaki zuten 1970eko uztailan, sanbartolomeei beste saltsa bat emateko asmoz. Luis Zubiaurre *Balle* (klarinetea), Victor Zubiaurre (saxofoia), Rikardo Gorriti (kaxa), Juan Luis Arregi (bonboa), Rikardo Mujika (txapak), Txomin Mujika (bonbardinoa). Zuzendaria, Jose Alberto Ansola izan zen, *Mauxitxa*.

Uztailan sortu zuten taldea, eta gogor ekin zioten lanari. Egun gutxiren barruan hainbat abestiz osaturiko errepertorio zabala zeukaten prest, eta Soraluzeko Santa Ana txiki egunean jotzeko eskakizuna jaso zuen Rikardo Gorritik. Bezperan ziren kontratua sinatzekoak, baina azkenean, kontratugileek kale egin zuten. Desilusia handia izan zen, baina ez etxean geratzeko bestekoa. Victor Zubiaurreren osabaren Seat 600 autoan sartu zituzten instrumentuak, eta osaba eta biak abiatu ziren Soraluzera. Gainerako musikariak, eta herriko beste neska-mutil mordoska bat autobusez joan ziren. Maltzagara lehenik, eta handik, La bergaresa hartuta, Bar Giilara. *Viva el anís* izan zen jo zuten lehenengo pieza. 307 pezeta bildu zituzten ikusleen artean, eta Udalak etxera itzultzeko taxia eta mila pezeta eman zizkien. Bakoitzak 150 pezeta hartu zituen, eta gainerakoa txanpana erosteko erabili zuten. Ondo baino hobeto ospatu zuten estreinaldi hura.

Gerora, Jose Antonio Osoro *Katxo* eta Jose Angel Zubiaurre *Balle* batu zitzaizkien, eta bederatz horiek osatutako taldea irteten 1970eko Txiki Egunean kaleak musikaz jantzi eta herritarrek dantzan jartzera.

1974rako hamabi lagunek osatzen zuten Mauxitxa, Antxon Azpiazu, Jose Inazio Sarasua eta Jose Inazio Izagirre ere batu zi-

relako taldera. Elgoibarko eta beste hainbat herritako festetan jotzen hasi ziren, eta 1976an lehenengo aldiz jo zuten Lanaren Diana. Jaime Arrese orduko alkateak afari bat agindu zien txarangako lagunei, irailaren 1ean goizean irteten baziren, oporren bueltan jendea lanera bidaltzeko. Esan eta egin. Ordutik ohitura bilakatu da hori ere, eta elgoibartarrak Mauxitxarekin hasten dira lanean, abuztuko oporren ostean. Mauxitxak herritarrekin ospatuko du mende erdia, eta eskerrak eman dizkiete herritarrei, urte hauetan guztietan emandako babesagatik.

A G E N D A

San Bartolome jaietan txupinazoa botako du Mauxitxak, eta horrekin hasiko dituzte urteurreneko ospakizunak. Urte osoko egitaraua prestatu dute, 2019ko sanbartolomeetan hasi, eta 2020 Soraluzeko Santa Ana jaiak arte. Hona hemen lotuta dituzten ekitaldien zerrenda:

◆ **Abuztuak 26, Txiki Eguna:**

12:00 Kalejira. Txarangako iraganeko eta egungo kideekin argazkia.

14:00 '50 Txiki' herri argazkia, Kalebarren plazan.

16:30 Kalejira, Kalegoen plazatik Sigmara.

17:00 Herri bazkaria, Sigan.

◆ **Abendura arte:** Txiki Egunetik Gabonetara bitartean dokumental bat grabatuko dute Txiki Eguneko bizipenekin eta herritarren laguntzarekin. Gabonetan aurkeztuko dute. Argazki erakusketa ere egingo dute, eta herrigintzako ekintzetan parte hartuko dute.

◆ **2020ko martxoa:** Sagardotegira irteera.

◆ **Apirila:** Kontzertu berezia, Udal Musika Bandarekin.

◆ **Maiatza:** Morkaiko Eguna aprobetxatuz, txarangaren eguna.

◆ **Ekaina:** Trinitate jaietan, erraldoien alardea, erraldoi erakusketa eta herri bazkaria.

◆ **Uztaila:** Soraluzeko Udalarekin elkarlanean, *Viva el anís* eta Sukalde. Soraluzen hasi eta Elgoibarren bukatu.

Irailaren 21ean izango da Gararock, eta zazpi taldek osatuko dute kartela

Gararock Mendaroko jaialdiaren antolatzaileak jarri daude irailera begira. Irailaren 21ean izango da aurten jaialdia, ohi legez Garagartzako plazan eta debalde, eta egun horretan etorriko diren taldeak zeintzuk izango diren aurkezteko jaia egingo dute gaur Herriko Enparantzan, 18:30ean. Aurkezpenean Djak izango direla aurreratu dute, eta bide batez, Maraca Diablore diskua berria ere aurkeztuko dute. Ina Iriondoren proiektua da Maraca Diablo eta gaur bertan aurkeztekoa duen *El regreso del niño indio* izeneko diskoa salgai jarriko dute Mendaroko aurkezpen ekitaldian, bai eta jaialdirako kamisetak eta beste hainbat material ere.



Gararock jaialdiaren aurtengo kartela Fortun diseinatzaile irundarrak egin du. Kartel ikusgarria osatu dute, maila bereko jaialdia iragartzeko. Guztira, zazpi talde gonbidatu dituzte irailerako, puntako musikariak denak, nor bere alorrean: La niña Hilo banda tuterarra, Kokein rock talde eibartarra, Villapellejos talde bilbotarra, Santanderko Idolos del Extrarradio, Magnetico grupo robot bermeoarrak, La Basu rap abeslari bizkaitarra eta Joseba Irazoki eta lagunak. Kontzertu guztiak doan entzun ahal izango dira. Musika jaialdia da Gararock, baina musikaz gain beste osagai batzuk ere izango ditu, orain arteko edizioetan bezala. Umeak musikara zaletzeko eta jaialdiaz familian eta lagunartean gozatzeko tailer bereziak ere antolatuko dituzte arratsalde parterako, eta Food Truck edo janari-furgonetak eta txosna ere jarriko dituzte. Hori eta gehiago ere izango da Gararock, baina zehaztasun gehiago uda ostean emango dutela jakinarazi dute.

Biraka dantza taldeak 'Birakatube' jaialdia emango du gaur, 20:00etan, Elgoibarren

Biraka dantza taldeak ikasturte amaierako azkeneko saioa eskainiko du gaur Elgoibarren, Herriko Antzokian, 20:00etan. Asteazkenean eta ostegunean izan ziren beste biak, eta Herriko Antzokia lepo bete zen bietan. Gaur ere beste horrenbeste gertatuko dela esateko moduan gaude, sarrera guztiak salduta daudelako. Ikuskizunean, Mendaroko, Eibarko, Elgoibarko eta Sorluzeko 180 bat ikaslek parte hartuko dute. Joan zen ostiralean, Mendaroko frontoian aritu ziren dantzan Biraka dantza taldekoak, eta ohi legez, frontoia bete egin zen.




Uxue Jimenez saritu dute Elkarren Ilustrazio eta Ipuin Lehiaketan

Euskal Herri osoko umeek hartu dute parte Elkarren 11. Ilustrazio eta Ipuin Lehiaketan, eta hiru marrazki onenen artean, epaimahaiak Uxue Jimenez elgoibartarrarena apartatu du. 8.000 marrazki baino gehiago aurkeztu dituzte haurrek lehiaketarako eta bigarren onena izan da Jimenezena. Elgoibarko Egur Arte Eskolako ikaslea da Jimenez, Lehen Hezkuntzako lehenengo mailako ikaslea. Egur Arte Eskolakoek urtero parte hartzen dute lehiaketa honetan, eta iaz, esate baterako, hiru ikasle saritu zituzten. Uxue Jimenezek ekainaren 8an jaso zuen saria.

Jo ta Ito taldeak kontzertua emango du bihar, Mendaron

Jo ta Ito talde mendaroarrak kontzertua emango du bihar, zapatua, Lagun Betikoak tabernaren kanpoko aldean, 20:30ean. Amets Fernandez, Asier Olabe, Hodei Gallastegi eta Unai Ayalak osatzen dute taldea eta duela bi urteko Gararock jaialdian eman zuten estreinako kontzertua. Geroztik, Kontzertio egunean eta Motxaila Egunean jo izan dute, bai eta joan zen urriko Gazteen Egunean ere, Gazte-txean. Lagun Betikoak tabernak antolatu du biharko kontzertua.





Sua, udari ongi-etorria egiteko

Gaur arratsaldean sartuko gara ofizialki udan, eta ospatzeko, makina bat ospakizun egingo dira gaur Europa osoan. Gurean, eta Kristautasunaren eraginez, domekan ospatuko dute askok eta askok udako solstizioa, San Joan bezperan. Gaurko ere iragarria zuen Elgoibarko Izarrak Ekigain, udari ongi-etorria egiteko azkeneko urteotan Sallobenten egin izan duten jaiak, baina lagun artean eta suaren bueltan jaiarekin gozatzeko behar den eguraldirik iragarri ez zuten gaurko, atzo goizean bertan behera uztea erabaki zuten.

San Joan bezpera egunean, baina, bai. Orduan makina bat etxe-ondotan ikusiko dira iluntzean su-argiak, eguraldia ere halakoxea iragarri dutelako: beroa. Kalean, hala ere, izendatutako lekuetan baino ezingo da piztu sua. Elgoibarran, Errotaberri zubi ondoan (Sigmako industrialdeko sarrean) eta Alkorta enpresarako bidegurutzean piztu ahal izango dira suak. Altzolan urteetako tradizioa dute San Joan bezperan auzoan su handia piztekoa. Oraintsu arte, erreka erdiko lehorgune batean piztu ohi zuten sua, baina ingurumenarentzat kaltegarri zela iritzita, errekan sua egiteko debekua ezarri zuten Udalak. Domekan, Altzolako parkean egingo dute sua Bi-Dubi auzo elkarteko gazteek.

Mendaron

Mendaron ere domekan piztuko dute sua. Indar handia hartu du azkeneko urteotan San Joan bezperako jaiak. Gaztekuak, Udalekuak eta Mendaroko Udalak antolatzen dute jaiak, elkarlanean eta herriko Euskal Dantza taldekoekin lankidetzan. 22:00etan hasiko da jaiak, iluntzearekin batera. Trinitatik jaitziko da Akerren segizioa, danbor hotsek

lagunduta. Segizio horretako kideek ekarriko dute sua eta eurek piztuko dute plazako su handia. Aurrez, baina, musika eta dantza emanaldiak izango dira. Adar-soinuekin hasiko dute ekitaldia, eta ondoren, euskal dantza taldekoek agurra dantzatzeko dute. Ez da gauako dantza bakarra izango. Gaztekuak bi taldek eta ludotekako haurrek dantza saio bana egingo dute, baita euskal dantza taldekoek ere. Herriko perkusio talde batek ere parte hartuko dute jaietan. Ludotekako erabiltzaileen gurasoek, gazte asanbladako kide batzuek eta herriko beste hainbat lagunek osatzen dute perkusio tailerreko taldea, eta astean zehar hainbat entsegu egin dituzte domekarako. Sua piztuko dute ondoren, eta Haritz Euskal Dantzari Taldeko Gaizka Uranga elgoibartarako aureskua dantzatzeko du suaren aurrean. Sua itzaltzean, Ameikutz musika eskolako umeen abesbatzak kantatzeko du, eta buruarinak, Aker berria (Hiru metrokoa) eta herriko erraldoiak dantzara irtengo dira plaza erdira.



Kirolak hartuko du Elgoibar bihar, Europako Kirolaren Herria dela ospatzeko



Elgoibar Europako Kirolaren Herria 2019 izendapena ospatzeko 70 kirol ekintza inguru antolatu ditu Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak urte guztirako. Festa nagusia, baina, zapatu honetan, ekainaren 22an, izango da. Herriko kirol talde eta eragile desberdinekin elkarlanean antolatutako egun berezia izango dela aurreratu dute. Elgoibarren dauden kirol taldeek euren kirola erakutsiko dute herriko hainbat gunetan: Kalegoen plazan, Maalan, Lekueder parkean, udaletxeko zein elizako arkupeetan, Kalebarren plazan, Olaizaga kiroldegian, IMH kiroldegian, Kultur Etxeko Sotoan eta Ikastolako frontoian.

10:00etatik 14:00etara izango da festa (Egitaraua eskuinean). Eguraldi txarra egingo balu, kaleko jarduera guztiak Olaizagara, IMHra, Ikastolako Frontoira eta Maalara eramango dituztela jakinarazi dute antolatzaileek. Krosa mantendu egingo lukete. Kalegoen plazan bi jarduera egingo dituzte, udaletxe parean eta frontoian (eskubaloia-tenisa 11:30ak arte eta futbola-pilota 13:00ak arte). 13:00etan Krosa jokatu dute erdiguneko kaleetan. Honakoa izango da ibilbidea: Kalegoen, Santa Ana, Antonio Arrillaga, San Inazio, Kalegoen, San Bartolome, P.M. Urruzuno, Lorito, San Frantzisko, Kalebarren, Errosario eta Kalegoen plaza. Aurretik bizikleta bat joango da eta baita bandera ere, ez baita lehia izango. Lasterketan parte hartzen duten guztiei Europako Kirolaren Herriaren kamiseta emango diete. Morkaiko mendi taldeak rokodromo txiki bat prestatuko du udaletxeko arkupeetan. Elizako arkupeetan (Lekuederrera ematen duen aldean), berriz, Zarta Arku Tiraketa elkarteak arku tiraketa antolatu dute. Hesiakin itxiko dute gune hori. Lekuederren futbola eta eskubaloia egongo dira. Kultur Etxe parean, Herri Kirolen erakustaldi bat ere izango da. Aizkolariak (Alex Txikon, Ernesto Ezpeleta *Bihurri* eta Hodei Ostolaza besteak beste), harrijasotzaileak (Joseba Ostolaza, Udane Ostolaza...), txingak, ingudea... izango dira. Eta Gabi parean xakea egongo da. Eguraldi txarra balego, Herri Kirolak Maalan egingo dituzte, eta xakea, Kultur Etxeko sotoan. Maalan Elgoibarko Lagun Taldeak ginkana antolatu du, gero Olaizaga Kirol Taldeak karatea eta Patronatuko jarduerekin bukatuko dituzte Maalako kirol jarduerak (Elgoibar Sasoian jarduera fisikoa, zumba eta aerobika).

22 ZAPATUA

ELGOIBAR EUROPAKO KIROLAREN HIRIA 2019 KIROL FESTA

KALEGOEN PLAZAN.....

10:00 - 11:30 Eskubaloia (Sanlo) eta tenisa (40-15).

11:30 - 13:00 Futbola (C.D. Elgoibar) eta pilota (Lagunak).

13:00 - 14:00 Atletismoa (Mintxeta A.T. eta Triatloi taldea).

LEKUEDERREN.....

10:00 - 11:30 Futbola (C.D. Elgoibar).

11:30 - 13:00 Eskubaloia (Sanlo).

UDALETXKO ARKUPEAN.....

10:30 - 13:00 Eskalada (Morkaiko).

ELIZAKO ARKUPEAN (Lekueder aldera)

10:30 - 13:00 Arku tiraketa (Zarta).

KALEBARREN PLAZAN.....

10:30 - 13:00 Xakea (Zubi Ondo).

12:00 - 13:30 Herri Kirolak (Sigma Probalekua).

MAALAN.....

10:00 - 11:30 Ginkana (Lagun Taldea).

11:30 - 12:30 Karatea (Olaizaga Karate Taldea).

12:30 - 13:15 60+ (Kirol Patronatua).

13:15 - 14:15 Aerobik-Zumba (Kirol Patronatua).

OLAIZAGA KIROLDEGIAN.....

10:00 - 12:00 Igeriketa eta buzeoa (Elgoibar Igeriketa taldea eta Urbizi).

* Eguraldi txarra egingo balu, kaleko jarduera guztiak Olaizagara, IMHra, Ikastolako frontoira eta Maalara lekualdatuko dituzte. Krosa mantenduko da Kalegoen plazan, 13:00etan.

Onsalo eta Astiazaran gailendu ziren Euskadiko Trontza Txapelketan



Emakumezkoen Euskadiko Trontza Txapelketa jokatu zuten zapatuan, plazan. Etzanda jarritako 45 ontzako enborrean 10 epai ebagi behar zituzten lehiatu ziren hiru bikoteek, eta Itxaso Onsalo aresoarra eta Leire Astiazaran villabonarra izan ziren azkarrenak. Lau minutu eta 42 segundoan amaitu zuten lana. Hamahiru segundo gehiago behar izan zituzten Ainhoa eta Maria Iraizoz ahizpek (4:55). Ainitze Perez eta Iraitz Idoeta bikote bizkaitarra sailkatu zen hirugarren postuan (6:49). Trontza txapelketa jokatu aurretik, Idoia Etxeberria eta Karmele Gisasola harri-jasotzaileek erakustaldia eman zuten harri desberdinekin. Antolatzaileek Etxeberriari omenaldi txiki bat egiteko baliatu zuten herri kirol jaialdia. Arazo fisiko batzuen ondorioz, hamabi urteko ibilbide oparoari agur esan eta erretiroa hartzea erabaki du Orioko harri-jasotzaileak. Bideoa: barren.eus-en.

Azkoitiko Isidro Erretegiak irabazi zuen Uztarri Motzeko Trinitateetako I. Saria



Sei demalari lehiatu dira Uztarri Motzeko Trinitateetako lehen sarian, bi jardunalditan, eta Azkoitiko Isidro Erretegiko idiak egin zuen lanik onena. 41 plaza, 2 zinta eta 6,83 metroko markarekin irabazi zuen idi-dema. Manta eta 1.000 euroko saria jaso zituen. Billelako Lopategiren idiak lortu zuen bigarren postua, 1.100 kiloko harria 40 plaza eta 1,70 metroan mugitu eta gero. Errenteriako Patxi Iñarreta sailkatu zen hirugarren postuan (39 plaza eta 3,14 metro).



Pala txapelketetako finalak, gaur

18:00etan hasiko dira gizonezkoen eta emakumezkoen pala txapelketetako finalak, kalegoen plazan (euria egingo balu, ikastolako frontoian). Emakumezkoetan elgoibartarrak dira finalera heldu diren bi bikoteak: Yoli Mateos/Olatz Txurruka eta Lidia Suarez/Eneritz Arrillaga. Gizonezkoen finalean Gorka Lizarralde eta Markel Portu mendarotarrek lvet Astiazaran eta Igor Albizuri azpeitiarrak izango dituzte aurkari.

Judith Goenaga xakelariak hogeitazkoen aurka jokatuko du Mendaron

Mendaroko xake eskolak aldibereko xake partida saioa antolatu du uztailaren 6rako. Judith Goenaga Uranga (Azkoitia, 1998) xakelariak hogeitazkoen aurka jokatuko du aldibereko partida. Judithen kontra jokatu nahi dutenek 653 715 375 telefonora deituta edo xakemendaro@gmail.com helbidera idatzita eman dezakete izena. Azkoitiko Anaitasuna Kakute taldeko kidea da Goenaga.



Plazara atera zuten pilota Lagunak Pilota Egunean



Lagunak Pilota Eskolak plazara atera zuten pilota astelehen arratsaldean. Aurre benjamin mailatik infantil mailara bitarteko pilotariak jokatu zituzten partidak, banaka batzuek eta binaka besteek, zazpi partida guztira. Lagunak Pilota Eskolatik jakinarazi dutenez, esku pilota sustatzea eta herritarrei bistaratzea zen partidak antolatzeke arrazoi nagusia, eta hori dela-eta, emaitzarik ez zabalteza erabaki dute.



Iker Izagirre pilotaria Gipuzkoako txapelkun

Eskuko Berezkoen Gipuzkoako Txapelketa irabazi du Iker Izagirre pilotari elgoibartarrak. Bikoteka Gipuzkoako eta Euskadiko txapelkun izan da Izagirre denboraldi honetan, Julen Iriondo bikotekide duela, eta urtea biribiltzeko banakako titulua irabazi du orain Lagunak Pilota Eskolako kideak. Bigarren urteko alebin mailako hamar pilotari lehiatu dira, buruz buru. Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioak hautatu zituen hamar parte hartzaileak, hautaketa probetan nabarmendu ziren pilotariak eta aurrez jokaturako txapelketetan emaitzarik onenak lortu zituztenak. Horien artean zen Izagirre. Txapelketa aparta egin ostean, Oñatiko Zubikoa pilotalekuan jokatu zuen finala, ekainaren 15ean, Intxurre taldeko Muruaren aurka. Izagirre nagusitasunez gailendu zen, 16-4ko emaitzarekin.

Bosgarren postua Iban Gonzalezentzat Araba Challenge proban

Araba Challenge txirringularitza probako hirugarren etapa jokatu zuten aurreko domekan, San Vicente de Arana herrian. Teodoro Casabal izan zen azkarrena 75 kilometroko ibilbidea osatzen. Gobike taldeko Iban Gonzalez elgoibartarra irabazlearengandik 37 segundora sartu zen helmugan, bosgarren postuan. Saillapen nagusian lider dago Gonzalez, Master 30 kategorian.



Nahaste Borraste proba ekainaren 28an izango da



35. Nahaste Borraste proba herrikoia antolatu du Kimetz elkarteak ekainaren 28rako, eta parte hartzera animatu ditu herritarrak. Izena ematea doakoa izango da, eta egunean bertan egin behar da, Kimetz elkartearen, 17:00etatik 18:30era. Lasterketa 19:00etan hasiko da. Antolatzaileek aurreratu dutenez, gizonezkoetan garaipen gehien (zortzi alditan irabazi du) lortuak dituen Iñigo Larizek ezin izango du parte hartu. Emakumezkoetan txapel gehien dituen Ainhoa Lendinez, aldiz, irteeran egongo da.

Iker Calvok Gipuzkoako igeriketa selekzioa ordezkatu du Pauen

Nouvelle-Aquitaine igeriketa saria jokatu zuten aurreko asteburuan Pauen (Frantzia). Alebin mailako Gipuzkoako selekzioko ordezkari zabalak hartu zuen parte lehiaketan, tartean Iker Calvo elgoibartarrak. Igerilari gazteak bost probatan hartu zuen parte, eta 200 eta 400 metroko



lasterketetan lortu zituen emaitzarik onenak. Lehenengoan, estilo libreko 200 metrokoan, zortzigarren postuan saillatu zen saillapen nagusian eta lehen postua lortu zuen bere adin tartean. 400 metrokoan, berriz, hirugarren egin zuen orokorrean eta lehen postua bere adinekoen artean.

LANA.....**Eskaerak**

Adinekoak zein umeak zainduko nituzke, orduka, goizez eta asteburuetan.
☎ 632 229 972

Adinekoak zaintzeko prest nago. Gauzez eta asteburuetan ere bai. Esperientzia eta erreferentziak ditut.
☎ 632 733 573

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan. ☎ 631 349 494

Adinekoak zein umeak zainduko nituzke, orduka, goizez eta asteburuetan.
☎ 631 870 590

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka edo etxeko langile moduan.
☎ 631 398 855

Adinekoak edo gaixoak zainduko nituzke, egunean bi orduz. Euskalduna naiz.
☎ 617 571 210

Etxeak garbitzeko prest nago. Arratsaldez. Esperientzia daukat.
☎ 637 102 725

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxean zein ospitalean.
☎ 611 306 391

Adinekoak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Garbiketa lanetarako ere prest nago. Titulua eta esperientzia ditut.
☎ 943 748 899/ 685 724 861

Bikote arduratsua lanerako prest. Baserriko lanetan, edo adinekoak zein umeak zaintzen egingo genuke lan.
☎ 602 398 328

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan.
☎ 658 464 396

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan. Paperak legez ditut.
☎ 632 992 730

Adinekoak zainduko nituzke. Orduka, gauzez, asteburuetan. Ospitalean ere bai. Esperientzia daukat.
☎ 631 518 917

Adinekoak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Garbiketa lanetarako ere prest nago.
☎ 632 796 081

Adinekoak zein umeak zainduko nituzke. Ospitalean gauak egiteko eta etxeko garbiketarako egiteko ere prest nago.
☎ 631 822 545

Edozein lan egiteko prest nago. Adinekoak zaindu, eraikuntza lanak...
☎ 631 736 770

Edozein lan egiteko prest nago. Adinekoak zaindu, eraikuntza lanak...
☎ 632 786 847

Adinekoak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan.
☎ 688 735 551

Adinekoak eta umeak zaintzeko, erropak lisatzeko eta sukaldari laguntzaile lanetarako prest nago. Esperientzia daukat.
☎ 602 047 812

Adinekoak eta umeak zainduko nituzke.
☎ 604 300 582

Umeak edo adinekoak zaintzeko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan.
☎ 643 374 471

30 urteko esperientzia duen zaintzaile euskalduna, adinekoak zaintzeko prest. Titulua daukat. ☎ 660 511 781

Adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. Etxeko langile moduan edo orduka.
☎ 697 665 452

Banaketa lanak egiteko edo portalak garbitzeko prest nago. Esperientzia daukat harreraren lanetan. ☎ 688 698 854

Edozein lan egiteko prest nago. Orduka edo jardunaldi erdiz. Erreferentzia onak eta esperientzia ditut.
☎ 688 712 075

Adinekoak edo umeak zainduko nituzke. Orduka edo asteburuetan. Garbiketa lanak egiteko ere prest nago.
☎ 631 870 590

Adinekoak zainduko nituzke. Orduka, asteburuetan eta gauzez ere bai.
☎ 632 229 972

Eskaintzak

Udan baserrian, ortuan, lan egiteko pertsona bat behar dugu.
☎ 666 557 538

Langile euskalduna behar da elgoibarko denda batean lan egiteko. Interesatuak curriculumak bidali mesedez: *buruagaltzen@gmail.com*

Bi ume zaintzeko pertsona bat behar da, irailetik aurrera. Asteleheneetik ostiralera, 8:00etatik 9:00etara eta 16:30etik 17:40ra.
☎ 653 745 992

ETXEBIZITZAK.....

Etxe txiki bat hartuko nuke alokairuan Elgoibarren.
☎ 656 734 367

Etxea hartuko nuke alokairuan. Lan kontratua daukat.
☎ 632 587 760

GARAJEAK.....

Garaje itxia salgai, Iñigez Karkizao kalean. 20m². Gabilondo inbiliarian eskuratu daiteke informazio gehiago.
☎ 943 744 467

BESTELAKOAK.....

Urrezko kate bat aurkitu dut Aita Agirre plaza inguruan.
☎ 943 748 864

KINTOAK.....

1954koen kinto ospakizuna, uztailearen 6an. 13:00etan luntxa, Usua taberna; 14:00etan argazkia; 14:30ean bazkaria eta musika, Sigman. 60 euro sartu, Laboral Kutxako kontu honetan, ekainaren 21erako: ES62 3035 0007 29 0071137526. Animatu!

administradores

Consejo Escolar de Colegios de Administradores de Empresas
Euzkoako Enpleu Administrazioaren Lanerako Keskaria



**ROSA Mª
PINTADO**

Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net


Gure komunitatean behin baino gehiagotan izan ditugu uholdeak eta beheko solairuko lokaletako batean dauden kutxatila konpontzea erabaki dugu. Lan hori egiteko, lokal hori itxi egin behar da eta komunitateak erabaki du kalte-ordaina ematea lokal-jabeari, egun batzuetan itxita izan beharko duelako eta ezingo duelako han egiten dituenak egin. Kontua da lanak egiten hasi direnean konturatu direla kutxatila horietako batzuk itxita daudela eta kezka sortu zaigula lokal-jabeak izan dezakeelako erantzukizunik gertatukoaren inguruan.

Derrigorra da, legeak hala jasota, erregistro putzu batzuk egotea eta haietara sarbidea egotea, garbiketa lanetarako eta behaketa lanetarako. Era berean, eraikineko urak kanporatzeko egiturara ematen duten kutxatila izatea ere oso ohikoa da. Kasu honi dagokionean, legeak argi dio lokal-jabeak ezin dituela erregistro putzua edo kutxatila itxi. Ezin duela haietarako sarbidea trabatu. Ez dezagun ahaztu lokal-jabe horrek komunitateko instalazio nagusiak errespetatu beharra dituela eta ezin duela haiei eragiten dien obrarik egin. Jabekideen komunitateak kutxatila horiek zabaltzeko exijitu diezaioket lokal-jabeari, bai eta lokal horretako errenteroari edo erabiltzaileari ere. Exijitutakoa idatziz jaso beharra du komunitateak eta bestea derrigorputa egongo da agindua betetzera.

ONDORIOA: Lokal jabea da kutxatila hori erabilgarri ez egotearen erantzule zuzena eta berari dagokio haiek zabaltzeko gastuei erantzutea. Era berean, kutxatila horiek zabaldu beharagatik aurreikusita zeuden lanak konplikatu eta garestituko balira ere, berak ordaindu beharko luke gain kostu hori.



Argazkiak eguztien eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENeke bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak, **Unax!** 5 urte! Mutiko handi bat zara dagoeneko! Patxo asko etxeko guztion partez.



Zorionak, **Markel!** Egunean zure eguna izan zen, eta bihar, ospakizuna! Sorginak eta iratxoa han izango dira. Muxu potolo bat, famau!



Zorionak, amama eta **Nora**, bihar zuen urtebetetze eguna delako. Muxuak, familia-koen partez.



Zorionak, **Gorka**, astelehenean 5 urte beteko dituzulako. Naroa, aita, ama eta familiako guztien partez.



Bihar 8 urte beteko dituzulako, eta pozez betetzen gaituzulako, **zorionak**, **Ander!** Familia-koen partez.

Erretratu bakarreko agurra: 4'50€
Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK


Erretratu bakarreko agurra: 3'50€
Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€



**Jarri ezazu zure publizitatea
BARREN astekarian edo
www.barren.eus webgunean**

☎ 943 744 112
barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

BARREN Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR



**PEDRO MIGUEL URRUZUNO,
S.KOOP**

OHIKO BATZAR NAGUSIA
Deialdia

Eguna: 2019ko ekainaren 25a
Ordua: 18:00etan lehen deialdian eta 18:30ean bigarrenen
Tokia: Ikastola. Ermuaranbide, 7 - Elgoibar



PINTURA ETA DEKORAZIOA
CORDON VILARCHAO

cordonvilarchao@telefonica.net
San Roke, 7 - Olasope, 18, Pab. 25-26

943 740 570 / 636 98 61 62



MEKANOSA

Errosario, 27
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA
ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA
MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX



LAGUNAK
colchonera textil hogar

**BEHAR DUZUN HORI
NEURRIRA JOSIKO DIZUGU!**

- Neurrira egiten ditugu estore, gortina, panel japoniarrak...
- Tapizatuak egiten ditugu, sofa, eserleku eta oheburutan.

Interesik gabeko finantziazioa! 24 hilabetera arte.

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com



*Gutxienezko finantziazioa 360€

21 BARIKAKUA

18:00 Pala txapelketako finalak, Kalegoen plazan.

18:00 Gararock jaialdiaren kartelaren eta Maraca Diablo taldearen disko berriaren aurkezpena Mendaron, Herriko Enparantzan.

19:00 Pintxo lehiaketa, Elgoibarren. Sustapen Ekonomiko Sailak antolatuta.

22:00 Deabru Beltzak taldearen 'Les tambours de feu' ikuskizuna Mendaron, Herriko Enparantzan hasita.

22 ZAPATUA

16:00 I. Olan arkitektura xake txapelketa azkarra. Zubi-Ondo xake taldeak antolatuta, Kultur Etxeko sotoan.

20:30 Jo Ta Ito taldearen kontzertua Mendaron, Lagun Betikoak taberna kanpoan.

23 DOMEKA

10:30 Euskadiko Xake Festa (16 urtetik beherakoentzat). Zubi Ondo xake taldeak antolatuta, Kultur Etxeko sotoan.

22:00 San Joan gaua, Mendaron. Trinitatetik jaitsiko da aker eta haren segizioa, sua eta tanbor doinuekin.

Segidan, sua piztuko dute Herriko Enparantzan.

23:00 San Joan sua piztuko dute, Altzoan.

25 MARTITZENA

19:00 Ahal Dugu-Podemosek bilera irekia egingo du Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

27 EGUENA

19:00 Isiltasun Eskolaren meditazio saioa eta hitzaldia, Jose Cruz Igartuarekin. Kultur Etxeko sotoan.

28 BARIKAKUA

19:00 Elgoibar BHI Institutuko ikasleen diploma banaketa. Herriko Antzokian.

19:00 Nahaste Borraste. Kimetz elkar teak antolatuta, Kalegoen plazan hasita.



Ondo pasau jaixetan!
Aurrez enkargatuz gero, hobe!

SAN PEDRO
J A T E T X E A
SAN PEDRO AUZOA
Tel. 943 740 010
ELGOIBAR

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK							
Egunez: 09:00-20:00			Iluntzean: 20:00-22:00			Larunbatak: 9:00-14:00 (*)	
21 BARIKAKUA	22 ZAPATUA	23 DOMEKA	24 ASTELEHENA	25 MARTITZENA	26 EGUAZTENA	27 EGUENA	28 BARIKAKUA
Egunez Garitaonandia	Egunez Etxeberria	Egunez Etxeberria	Egunez *Fernandez	Egunez Yudego	Egunez *Oruesagasti	Egunez Barrenetxea	Egunez *Ibañez
Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Etxeberria	Iluntzean Etxeberria	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Yudego	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Barrenetxea

* Fernandez:
Herriko enparantza 4,
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

* Ibañez:
Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

* Oruesagasti:
Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384

Urte guztian, gabez: 22:00-09:00
Zulueta. San Agustin kalea, 5 (Eibar)
943 820 498



Elgoibar BHI
www.elgoibarbhi.eus

2019-2020 IKASTURTEA
DBHko eta BATXILERGOKo
matrikulazio epea:

ekainaren 21etik
uztailaren 5era

Bulegoko ordutegia:
09:00etatik 13:00etara



Giza eta gizarte zientziak

- Gizarte zientziak
- Humanitateak

Zientziak

- Osasun Zientziak
- Zientziak eta teknika

Arteak

- Artistiko musikala

943 899 316
013431@hezkuntza.net
www.elgoibarbhi.eus





FOTOIOSU_PHOTOGRAPHY



Iosu Juaristi

Iñigo Otaño



Kolpera esnatu naiz amak ireki duenean nire logelako atea. Urduritasunak harrapatu baino lehen, amaren musuak lasai egoteko esan dit. Segidan, besotan hartu eta egongelara eraman nau presaka, deabrua atzetik bageneuka bezala. Pijamatik tiraka hasi zait, biluzteko intentzior, baina nik gorputz txikia uzkurto eta pijamari itsatsita jarraitu nahi dut, ametsen erreinu goxoari lotuta.

Amaren ezintasunezko hasperenak entzun ditut, aita etorri eta bien artean dida batean pijama kendu eta kaleko arropa jantzi didaten arte. Negarrez hasi naiz bere erreinua inbaditu duten erregea lez, baina erresistentzia makala izan dela nabari da, pare bat gaileta ahoan sartuta malkoak bukatu baitzaizkit.

Ezer gehiagorako denborarik gabe, bere gorputzari itsatsita daukan motxila barruan sartu dit aitak, aurpegia ezik beste guztia ongi tapatu eta kalera abiatuz. Iluna da oraindik, goizegi ikastolara

joateko, goizegi edozertarako! Kanpoko freskotasunak berez astunak ditudan begi txikiak itxi arazten dizkit, eta konturatu orduko lo hartu dut...

Jendearen hotsek eta nire aitaren mugimendu bortitzek esnatu naute orain. Begiak ireki eta argitasun gorri batek gauean korrika goazen guztiok inguratzen gaitu. Ke artean bi argi urdin eta bizi; jendea pozik, oihuka, haiei jarraika. Oraindik ez dakit zergatik eta zertarako, baina zerbait handia dela bai, handia naizenean ulertuko dudan zerbait.

“Ez dakit zergatik eta zertarako, baina zerbait handia dela bai”




I. URTEURRENA

Julian Santamaria Contreras

"Santa"

2018ko ekainaren 21ean hil zen, 72 urte zituela. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, ekainaren 22an, 19:00etan, Elgoibarko Bartolome Deunaren Eliz-parrokian. Joango zaretanoi alde zurretik eskerrak.



I. URTEURRENA

Miren Unzueta Mendicute

2018ko uztailaren 3an hil zen, 95 urte zituela. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, ekainaren 22an, 19:00etan, Elgoibarko Bartolome Deunaren Eliz-parrokian. Joango zaretanoi alde zurretik eskerrak.

Beti bihotzean

Etxekoak



II. URTEURRENA

Maria Elena Crespo Landa

2017ko ekainaren 24an hil zen.

Izan zinelako, gara.

Eta garen bitartean, bihotzean eramango zaitugu.



II. URTEURRENA

Juan Mari Uranga Uranga

2017ko ekainaren 9an hil zen, 51 urte zituela. Haren oroimenez, II. urteurreneko meza izango da, domekan, ekainaren 23an, 12:30ean Mendaroko Azpilgoetako eliz-parrokian.

***Zure oroimenak indartzen gaitu.
Beti izango zaitugu gure bihotzetan.***

Etxekoak



Eskertzak eta urteurrenak 943 744 112

HURRENGO BOE SUSTAPENA ELGOIBAR OLASOATEN



IZENA EMATEKO EPEA ZABALIK
EKAINAREN 24ra ARTE



943 31 68 68

www.sukia.com

 **sukia**

Zure etxean zaude **Estás en tu casa**